



ON.
ON

Autoekoizpena, 2012.

Emakumeen ahots tematia

ITSASO GUTIERREZ Retolaza 90eko hamarkadan ezagutu nuen, Donostiako beste bi lagun gaztetxo-rekin batera Jauko Barik, xamur bezain ausart eta sailkaezina den taldeko partaide zenean. Neska-taldeak, gerora, rock izaera hartu zuen batez ere; eta maketa bat eta bi disko kaleratzeaz gain, Europatik barrena biratxo egin zuen. Handik zenbait urtera Keike taldean aurkitu nuen Itsasoren arrastoa. Ondarroako taldeak metala eta rocka nahasten zuen eta hainbat disko ere kaleratu zituzten; Itsaso gitarra jotzaileetako bat zen.

Handik gutxira, Goienak antolatuta izan duen Danbaka musika lehiaketako laugarren edizioan, ezezaguna zitzaidan Xarma taldeak sorpresa galanta eman zigun, hardcore melodikoa, rock gogorra, amorrua, egundoko sentimendua eta agertokia betetzen zuen talde bizia aurkitu genuelako. Taldeak bi gitarra jotzaile eta bi abeslari zituen, neska eta mutila. Neska nor zela uste duzue? Erraz irabazi zuten lehiaketako saria, diskoa plazaratu zuten, baina denbora laburrean, partaideen arteko desadostasunen ondorioz, taldea desegin zen.

Orain, urte eskaseko epean, daukan buru gogorragatik eta den tematiagatik, 'Motörhead' deitu beharko diogu laster. Bueltan itzuli zaigu Itsaso Gutierrez Retolaza, ON talde berriarekin. Dennis Alberdi (bateria) eta Ibai Suarez (baxua) alboan dituela, Xanperen Koba estudioan grabatutako diskoa jarri digu eskura. Ahotsa eta gitarra ditugu bereak.

Bizitzak ematen dituen ostikoen aurrean erne egon, borrokatu eta onari erreparatzea erabaki du Itsasok; emakumeek sufrizten dituzten bidegabeke-riak azalarazi eta salatzeke baliatu nahi izan du rocka. Baita lortu ere.

ON malenkonioa da, bizipen garratzen kontakizuna, baina gogor borrokatuta argitasuna eta alde positiboa ere baduela adierazten duena. Musikalki ere melodikoa da, baina aldi berean indartsua. Hala, euskaraz abestutako hamaika kantuetan bulimiari, emakumeen amets zapuizuei, tratu txarrei, bikote-harremanei, feminismoari, Saturrarango espetxeari... doinua jarri diete barruraino sartzen diren kantuetan. Horien artean, punk-popetik stoner indartsuenerako bilakaera duen *Haragitan* singlea izan daiteke; Donostiako Izanpirata lehiaketa irabazi zuen kantak, post-hardcore eta rock biziena batzen dituen *Neu nabigatzen* indartsuak jarlekutik botako zaitu supituan, *Fer Apoa* lagun dutela; Ikasle Abertzaleak-en kongresurako prestatutako *On* abestian Fermin Muguruza eta Delirium Tremens taldeko Andoni Basterretxea abiada bizian jarri dituzte, zapatilla rockeroak jantzi-ta; hard-rockaren eta stonerraren mugan kokatu dute *Etsitzen zaitu*, eta pop-rockaren xamur-tasuna aurkitu dute *Negua* eta *Oraina* abes-tietan, besteak beste. ■

Iker Barandiaran








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia